dFERIA ezinbesteko topaketa bilakatu da Arte Eszenikoen esparruan. 1988an hasi zuen bere ibilbidea, eta, gaur egun, estatuko erreferente nagusi bihurtu da arte eszenikoetako profesionalentzat, eta harremanak sendotzen jarraitzen du Europako zein Latinoamerikako merkatuetan.

Aurten, martxoaren 6tik 9ra bitartean ospatuko da dFERIA. Antzerkia, dantza eta zirkua Donostiako 10 eszenategitan. Hiria bera, Arte Eszenikoen feria ikusgarri bihurtuta, Arte Eszenikoen festa handia: lau egunetan, 30 ikuskizun eta 35 emanaldi.

Bestalde, jarduera paraleloek eta profesionalen arteko bilera eta topaketek aberastu egiten dute, urtez urte, dFERIAren programazioa, eta, hala, dFERIAk toki bat lortu du sektoreko profesionalen agendan, eta beste espazio bat zabaldu du hirian gainerako kultur ekitaldi nagusien ondoan. Horrenbestez, arte eszenikoen sektoreko programatzaile, zuzendari, sortzaile, aktore, eta publikoaren arteko topaleku bihurtu da Donostia. Dagoeneko, dFERIA erreferente ukaezina da sektorearentzat, besteak beste, dinamikoa delako, esperientzia-trukea ahalbidetzen duelako, berrikuntza artistikoak ekartzen dituelako eta merkataritza-harremanetarako esparru eraginkorra bihurtu delako: plataforma ezin hobea bihurtu da ferian parte hartzen duten antzerki eta dantza-ikuskizunak ezagutzera emateko.

12252n I

dFERIAk bi helburu-zutabe nagusi ditu: batetik, arte eszenikoei buruzko festibal garaikide bat eskaintzea publikoari eta zaleari oro har; bestetik, merkatua sortzea eta zabaltzea, aurkeztutako ikuskizunek horizonte berriak izan ditzaten, emanaldiak lotu ditzaten eta bizitza profesional ahalik eta luzeena izan dezaten.

dFERIA erakusleiho garrantzitsua da bertan parte hartzen duten konpainientzat. Adibide bat: 2016ko edizioa amaitu eta hurrengo hilabeteetan, ferian aurkeztu ziren ikuskizunen beste 240 emanaldi saldu ziren, eta horrek **1.200.000 eurotik gorako** mugimendu ekonomikoa sortu du. Horrek esan nahi du dFERIAri begira 2016n egindako diru-inbertsio publikoa sei aldiz biderkatu dela. Eta oraindik ez da amaitu iazko feriaren emaitzen soka, luzea baita.

## dFERIA ABROAD

XXIII. edizio honetatik aurrera dFERIAk beste tresna bat izango du arte eszenikoen esparruko sortzaileak oro har eta bereziki euskaldunak laguntzeko, dFERIA ABROAD: tresna honen bidez, sortzaileen lana sustatu nahi da eta haien ekoizpenak Europako zein Amerikako merkatuetara zabaldu. dFERIA ABROAD kolaborazio-proiektu bat da, REDELAE Arte Eszenikoen Sare Eurolatinoamerikanoaren baitan sortua.

Zer da dFERIA ABROAD? Proiektu berri honen bidez, dFERIAk bere helburu nagusietako bat indartu, osatu eta sendotu nahi du, hau da, merkatuak zabaldu eta merkataritza-itunak lortu. dFERIA ABROAD proiektuaren bitartez, dFERIAk lanean jarraituko du urtean zehar, zenbait unetan, Donostiatik kanpoko plataformetan.

Helburuak

- Kultura-trukeak sendotzea
- Euskal Arte Eszenikoa kanpoan ezagutarazten laguntzea
- Merkatu berriak bilatzeko eta zabaltzeko sinergiak sortzea
- Euskal Kultura garatzeko eta zabaltzeko lankidetza-jarduerak sustatzea
- Euskal konpainiak Arte Eszenikoen Festibaletan izan daitezen laguntzea

## dFERIA ABROAD: LEHEN EKIMENAK

### San José de Costa Ricako Arteen Nazioarteko Jaialdia (Festival Internacional de las Artes: FIA)

Jaialdi hau 1989. urtean sortu zen, eta interes nazionaleko gertakizun bihurtu da. Costa Ricako kultura- eta arte-jaialdi nagusia da. Munduko herrialdeen kultura-topagune bilakatu da, eta munduko artisten eta sektoreko enpresen arteko zubia ere bihurtu da, betiere kultura sustatzea helburu.

Jaialdi honetan, euskal eszenaren presentzia nabarmena izango da, bost konpainia izango baitira bertan: Markeliñe, Kukai, Shakti Olaizola, Larrua eta Zanguango. 2017ko ekain-uztailean izango da.

12252n I

### Euskal eszenari eskainitako asteburua Montevideoko (Uruguai) Sala Verdi antzokian

Sala Verdi, Montevideo, Uruguai. Sala Verdi antzokia Uruguaiko Komedia Nazionala osatzen duten antzoki ofizialetako bat da. Era berean, Montevideoko Intendentziaren baitakoa izanik, konpainia nazionalen emanaldiak antolatzen ditu, bai eta nazioarteko konpainienak ere, bereziki beren lanak han lehen aldiz erakusten dituzten konpainienak.

2017ko abuztuan, Montevideoko Sala Verdik euskal eszenari eskainitako asteburu bat antolatuko du, eta bertan zenbait euskal konpainiak parte hartuko dute: Tanttaka, Kulunka, Shakti Olaizola…

dFERIA ABROAD proiektuaren bidez, halako plataformak antolatzen dituzten lurraldeetako programatzaile eta komisario edo arduradun esanguratsuenen presentzia bermatuko da, bai eta inguruko lurraldeetakoena ere. Era berean, dFERIA ABROADek plataforma

bakoitza sustatzearen aldeko lana egingo du, eta euskal ekoizpenak Euskal Herritik kanpo zabaltzen jarraituko du, nazioarteko agertokian.

Laburbilduz, dFERIA ABROAD proiektuaren bitartez, dFERIAk presentzia handiagoa izango du kanpo-merkatuetan, eta helburua izango du euskal arte eszenikoen sorkuntza-lana sustatzea eta haientzako merkatuak sortzea, kultur aniztasuna eta beste errealitate artistikoekiko mestizajea ere bultzatuz.

12252n I

dFERIA es una cita ineludible en el sector de las Artes Escénicas. Inició su andadura en 1988 y hoy en día se ha convertido en un claro referente para los profesionales de las artes escénicas de todo España y continúa afianzando sus lazos en el mercado latinoamericano y europeo.

dFERIA se ha celebrado este año entre el 6 y el 9 de marzo. Teatro, danza, circo en diez escenarios de Donostia. La ciudad, en sí misma, se ha convertido en un gran escenario dedicado a las Artes Escénicas, la fiesta de las Artes Escénicas con 30 espectáculos que han ofrecido 35 funciones.

Las actividades paralelas y las reuniones profesionales enriquecen, cada año, la programación de dFERIA que ha conseguido abrir un hueco en las agendas de los profesionales del sector y abrir un espacio en la ciudad al lado de otros eventos culturales muy importantes en música o cine. Así pues, San Sebastián es punto de encuentro del mundo de las artes escénicas para programadores, directores, creadores, actores y público. dFERIA es ya un referente indiscutible para el sector por su dinamismo, porque genera intercambio creativo, porque aporta innovación artística y porque genera intercambio comercial, al constituirse como una inmejorable plataforma de lanzamiento para los espectáculos de teatro y de danza que participan en la misma.

dFERIA tiene dos columnas fundamentales: ofrecer un festival contemporáneo al público y al aficionado; en segundo lugar, conseguir generar mercado, y que los espectáculos presentados abran nuevos horizontes, vendan funciones y consigan una vida profesional lo más alargada posible.

12252n I

dFERIA es un importante escaparate para las compañías participantes. Un ejemplo: una vez finalizada la anterior edición 2016 y en los meses posteriores, se vendieron 240 funciones de los espectáculos presentados en la feria, generando un movimiento económico superior a **1.200.000 euros**. Esto supone multiplicar la inversión pública realizada en dFERIA 2016 por seis. Y hoy día, siguen sucediendo cosas como consecuencia de la feria de este año pasado.

## dFERIA ABROAD

Esta vocación decidida de dFERIA de ayuda y apoyo a los creativos, en especial a los creativos vascos para difundir y potenciar la creación vasca abriendo nuevos mercados tanto en Europa como en América contará a partir de esta XXIII. edición con una herramienta nueva que hemos denominado dFERIA ABROAD y que nace como fruto de la colaboración en el marco de REDELAE, Red Eurolatinoamericana de las Artes Escénicas.

¿Qué es dFERIA ABROAD? Este proyecto complementa, fortalece y refuerza la labor de generar mercado de dFERIA alargando la presencia y la labor de la misma en varios momentos a lo largo del año en plataformas exteriores, fuera de Donostia / San Sebastián.

Objetivos

- Fortalecer el intercambio cultural.
- Colaborar en la difusión de la Creación Escénica Vasca en el exterior.
- Crear sinergias para el conocimiento y apertura de nuevos mercados en el exterior.
- Fomentar actividades de cooperación, desarrollo y difusión de la Cultura Vasca.
- Favorecer la presencia de las compañías vascas en festivales de AA.EE. en el exterior.

## PRIMERAS INICIATIVAS dFERIA ABROAD

### Festival Internacional de las Artes (FIA) en San José de Costa Rica

El Festival Internacional de las Artes (FIA) en San José de Costa Rica. Es un festival nacido en 1989 considerado de interés nacional. El festival es el mayor evento cultural y artístico de Costa Rica. Se ha convertido en el puente para el acercamiento cultural de todo el mundo y privilegiando el intercambio entre artistas y empresas culturales en beneficio del sector cultural.

En el marco del festival la presencia vasca, compuesta por cinco compañías, será importante: Markeliñe, Kukai, Shakti Olaizola, Larrua y Zanguango. Junio-julio de 2017.

12252n I

### Fin de semana escénico vasco en la Sala Verdi en Montevideo, Uruguay

Sala Verdi en Montevideo, Uruguay. La Sala Verdi es una de las casas de la Comedia Nacional, elenco oficial de Uruguay. Asimismo, en su carácter de sala perteneciente a la Intendencia de Montevideo, acoge presentaciones de compañías nacionales como internacionales que particularmente estén realizando su primera representación en el país.

En agosto de 2017 la Sala Verdi de Montevideo organizará un fin de semana dedicado a la escena vasca compuesto por varias compañías como Tanttaka, Kulunka, Shakti Olaizola, ...

dFERIA ABROAD asegurará la presencia de programadores y curadores relevantes provenientes del país donde se desarrolla cada plataforma, y también de países colindantes. Así mismo, dFERIA ABROAD trabajará para la difusión específica de cada plataforma y seguirá apoyando la creación vasca lejos de Euskal Herria.

Para dFERIA, a su vez, dFERIA ABROAD aporta una mayor presencia en mercados exteriores, refuerza el objetivo de generar mercado y apoyo a la creación escénica vasca y fomenta la multiculturalidad y el mestizaje con otras realidades artísticas.